

Rosa M. Martín Sabarís

EHUKO IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

## Ohorezko suizidioaren apologia

NIRE AUZOKOAK bere buruaz beste egin du. Alacanten bizi da. Eta Barakaldon, Dublinen eta Menorcan. Eta Madrilen, Aaiunen eta Buenos Airesen ere bai. Bere buruaz beste egin du, baina egunkariak ez dute ezer esan. Durkheim soziologoak 1897an suizidioa arrazoi sozialetan oinarritzen den fenomeno indibiduala dela iragarri zuenetik, komunikabideek tentuz ibili behar dute suizidioaren berri emateko orduan. Arrazoiak konplexuak direla diote adituek, eta ezin direla lotu gizabanakoak egindakoak jendartearen gorabeherekin. Suizidioei buruzko albisteek efektu imitatzailea sortaraz dezaketela –Werther efektua diote– eta kontuz ibiltzeko, batez ere ahulak eta kalteberak direnekin.

Nire auzokoari ez diote dena kendu. Etxea kendu zioten, eta kalean lo egitera eramán zituen seme-alabak. Nire auzokoari lana eta lanpostua ukatu zioten eta zaborrean bilatu ohi du afaria.

Eta lurra eta nazioa lapurtu zizkiotenean, erbestean eraiki zuen herria. Eta aurreztutako sosak kendu zizkiotenean, maletak egin eta jaioteritik urrun abiatu zen. Bortxatu egin zuten eta sustraitik kendu zioten sexua izateko askatasuna, eta zauriak miazkatzen eman du geroko denbora guztia. Seme-alabak, neba-arrebak lapurtu zizkioten eta plazak bete zituen.

Duintasunaren kanpamentuak eraiki dira. Maiatzeko

plazak zapi zuriko amez bete dira, hasi eta amaitu egin dira hileta-elizkizunak eta omenaldiak, kaleratzeen aurkako plataformak, legeak, eskratxeak, sinadurak... Baina nire auzokoak, etsipenak jota, atsekabetuta, berriro esango du “ezin dut gehiago”. Eta berriro akabatuko du bere burua.

*Diruaren erreinuan,  
mugarik gabeko  
mundu berrian,  
zeintzuk dira  
zeharkatu ezin diren  
mugarriak? Zenbat  
lerro gorri gainditu  
behar dute  
arduradunek  
oraindik?*

Banakakoa da desesperazioa, arrazoiak sozialak, politikoak, ekonomikoak... Eta arrazoi horien atzean erabaki estrategikoak, ezinbestekoak, hartu dituzten beste gizabanako batzuk. Ardura arduradunena da. Talioaren legea mendekuari muga jartzeko sortu zen, zelako kaltea, halako zigorra. Edozein heriotza-zigorren aurka nago, justizia sozialaren alde. Erlatibismoaren garaian, diruaren erreinuan, mugarik gabeko mundu berrian, zeintzuk dira zeharkatu ezin diren mugarriak? Zenbat lerro gorri gainditu behar dute arduradunek oraindik? Sarraski hau

eragin duten arduradunen ordua da, lerro gorri guztiak zeharkatu dituztenen ordua. Intimitatea, ospea, izena eta irudia zikinduta ikusi nahi ez badituzte, ohoreak ardura dielako izango da. Ohorea edo egin-beharrak, arauak. Bete ez dituzten arduradunen ordua, beraiei dagokie orain.

Beren burua hil bezate lerro gorri zabala iragan duten guztiak. Agur eta ohore. ■



DANI BLANCO



**Itxaro Borda**



IDAZLEA

## Maggiaren haurrak

MILTON FRIEDMANEN irakaspenak egiaztatu zituen Thatcher andreak Ingalaterra guztia guda zelai minbera bihurtuz. Elvis Costello aski luzaz bizi izan da *Maggiaren* hobiko lurra arraiki tapalakatzeke, berriz piztu ez dadin. Ikusi dugu Belfasteko gose grebalarien familien poza, Durhameko meatzarien buruzagiaren irria eta Ken Loachen ironia dastatu. Kazetariak errepikatu digute Thatcher zendu baldin bazen ere, neoliberal nahikoa geratzen zela oraino lurraren azalean, dakigun deboila kolektiboa segurtatzeko.

Baina pentsatzen jartzen bagara zintzoki, konturatuko gara ekonomiaren aldarean

politika eta eztabaida demokratikoa sakrifikatzean, “denak ustelak!” oihutzean larderia diktatorialagoa eskatuz, soldata sozialen egokitasuna kitzikatzean, adibidez, edo poesiaren alorrean bertan merkatuaren legea muga gisa eraikitzean, orduan bai tatxerismoa burmuinetan ohartzeko isurtzen zaigula, haren haur perestuak bilakatuz.

Friedman eta Thatcher denda-jabe txikien umeak ziren, bekadunak, beranduago zitzikatuko zituzten estatuaren laguntzarik gabe boterera sekula iritsiko ez zirenak: paradoxaren paradoxa. ■

